

LEZO'KO BERRIAK

ZARRAK BERRI

I

LEZO

USARIOA dan bezela, derizkiot, lenengo adierazi bear detala zer erri dan Lezo. Nun dagon, nolako gizon argidotarrak eman izan dituen, ta beste gertaeraen berri apur batzuek. Ala egin bear dala diyo gauza abetan guztiz trebea dan batek: *ut prius tempus locum personasque describat* (1).

Gipuzkoa'ko erri chiki, polit, alai, atsegiñ bat da Lezo'ko erriya.

Milla seireun ta ogeita bost garren urtian ez zeuzkan larogei bat jaun-eche besterik, eta gaurko egunian berreun ta geyago izango ditu.

Kastilla'ko errege Alfonso bederatzigarrenak jarri zuan Ondarrabiko erria'ren mendian 1203-garren urtian, ta uri ospatsu ta ots aundiko arren agintearen azpiyan egon zan, Irun'go erria bezela, denbora luzian. Geruago bere gisara bizitzeko baimena edo gallaldia irichi zuan.

Lezo'ko erria arkitzen da toki chit alayian, Pasai'tik sartzen dan ichas adarrak bere zimenduak miliškatzzen dizkala. Ipar aldera Jaizkibel mendia dauka, sortaldera Ondarrabia ta Frantziya, ego aldera Errenterriya, Oyartzun ta Arichulegi'ko mendiak eta sart-aldera bi Pasayak eta Donostiya.

España'ko errege Karlos lenengoa'ren denboran, egin zan Lezo'ko ausoan, «Borda-portu» izendatzen zan lekuban, ichas-ontziak egiteko lan toki aundi ta ongi ornituba.


Beste ichas-ontzi askoren artian, lan-toki ayetan egin ziran «Ama

(1) S. G. super Erech L. 1.

Birjiña Pillarekoa» eta «Santiago» izendatzen ziran ontzi mardul eta sendoak; eta an bertan egin zan geroago «Armada Real'aren» *Kapitana* izan zan, ontzi aundi, indartsua, berreun tonelada neurtzen zitubana. Azkeneko ontzi ontan sartu zan Lisboa'n Felipe bigarrena.

Oraingo Lezo'ko jendiak, guztiyak ez bada ere, geyenak beñepin nekazariak dira, bañan lengo denboretan ez zan ori gertatzen, bada orduban ichas-gizonak ziran batzuek eta itzas-ontzi gilleak besteak.

Erri ontako eleiz-nagusia Done Juan Batista'ri donkitua dago. Eleiz antziñekoa, aundi, eder eta apaña da, ta tontor batean jasua nola baitagon, badirudi erri guztien gañetik bere itzal samur eta atsegiña zabalzen duela erriko eche ta bazerri guzietara.



Lezo urrutitik begiratuta.

Eleiz-nagusia'ren ifar aldera ta bere oñetan, dago Gurutze Donearen eleizacho ospatsua, plaza koškor bat aurreko aldian daukala ta bertan erriko echia.

Lengo denboretan eritegi bat izan biar zuben ontan, bañan ez daukate azpaldicho ontan beartsu eriyentzat echerik, eta antolatzen dira beste moduz beren biarretan.

España'ko errege Karlos Ienengoa, Gante'ra joan zanian 1540-garren urtian Lezo'tik itzas-ontzi'ra sartu zan ta lagundu zion Ondarrabiño erriko apez-buru Juan Martinez Lezo jaunak.


Lezo'ko erritik igaro zan ere, Kristobal de Rojas jauna, 1552-garren urtian Trento'ko eleiz-batzarrera joan zanian, ta Lezo'n egon zan bertartian, «Dorre» deitzen zayon bertako jauregian lo egin zuan.

Bai omen zan denboren batian, arri landuzko eskallera ikusgarritzko

bat, bertakoak egiña, berreun ta sei mallakoa, Darrietatik Erreteriko Ugarrizara igotzeko. Orain ez dago oroimen apur bat besterik.

Bire ederrak dauzka Lezo'k. Erreterit'ik dijoana, jai egunetan jendez estalia arkitzen da, bada ez bakarrik inguruko errietakoak, baizik baita Donostitik ere erruz etortzen da, Erreterit'ra dijoan tranbideari eskerrak, eta bide ondoan dauden ostatuetan artzen dute beren jan-mokadua.

Beste bidea, Lezo'tik Pasai Done Juan'era dijoana da. Ur bazterrean dijoa beti, ta guztiz atsegiña da.



Eleiz-nagusiya erri guzien gañetik.

Burni-bideak ere egiten diyo arramaška chiki bat Lezo-ko erriari, bada bere lurretan dago, askok (gaizki esaten badute ere) Erreteriko *estazioa* deitzen dutena.

II

LEZO'KO SEME ARGIDOTARRAK

Erri chikiya ta tatarra bada luzian ta zabalían, goruntz neurrigabe-koa da; bada bere seme argidotar eta ospatsuak igo dute Lezo'ko erri leñargiaren izen ots aundikua, mallik goituenetara.

Lezo'ko erri pistriñak eman ditu seme aunditasun eziñ alakoak; ala letraduak nola gudariak, ala Eleiz-gizon nola itzas-gizonak. Guztitik izan ditu, ta izan ditu asko.


Danak argitaratzea, ezin egin alako lana izango litzake, bada izen utsak egingo luteke asken gabeko errenkada.

Batzubek bakarrik argitaratuko ditut beaz.

Guillermo Lazun deritzaionari zor dio Lezo'ko erriak bere izatia. «Lezo-aundiko» echeko-jauna zan, ta eche arren izenetik datorkiot erriari gaur duben izena. Oraindik badira ausoen artian Lazun abizen-tzat dauzkatena. Bazan esaera zar bat ziona, Lazun abizena *Lazedemonio'tatik* artua zala, Urruticho abizen billa juan zirala derizkiot.

Guillermo au, Kastilla'ko Alfonso bederatzigarrena'ren adiskide aundia zan, ta berakin zer ikusi aundiak izan zituben.

Lazun'tarren eche leñargiak zeuzkan eskut-armetan: arkume bat



gurutze ta bande-
ra batekin, iru
chalupa chiki ibai gañean
ta banda berdea azpian.

«Lezo-aundi», eche bereko Juan Muñoz'ek, bere kontuz egintako bi itzazontzi'rekin, prantzez'tarren kaltez portizki ta bikain gudatu zan, ta jarama batian monsieur de Sempere zeritzaion jaun ospatsua menperatu ta katiatu zuben.

Erriaren alderdi bat.

Juan Borda'koa, Felipe bigarrena'ren denboran, buruzari trebe, ernai ta bulartsua izan zan.


Errege orren denbora berean esagutu zan Juanot zarra itzas-gizon errutsua, Lezo'ko semia. Done Migel'ko ugartean prantzezakin izan zan jazarra batian, etsaiyak iya garaituak zeuzkala, bala galdu batek kendu zion bizia. 1582'ko Ana donea'ren eguna zan, ta Juanot-zarra'k laro-gei urte zeuzkan. Felipe bigarrenak samin aundiarekin jakin zuben ger-taera atsekabe ura, ta Juanot-zarra'ren ondorengoai mesede aundiak

egin zizkien. Juanot'en aurrerokoak ere ez ziran motelak izan, bada Pelayo'ren denbora'n ere izan ziran errege onekin maurien kaltez guda-
tzera juan ziranak.

Isabel eta Fernando errege Katolikoak, Granada ersitzera juan ziran-
anean, eskeñi zuten sari bat, «Pendón de Oro» izendatzen zana, indartsuago, portitzago, kementsuago gudatzen zubenarentzat. Sari ura irabazi zuben Lezo'ko seme argitsu Kapitan jeneral Migel de Billabizen-
zio, Juanot errutsuaren aitonak.

Juanot'ek seme bat izan zuen Migel zeritzaiona, aita il zan itzas-
jazarran arkitu zana, ta andik urte batzuetara Olandarrak il zuten bera-
kin izan suben guda batian.

Migel Darrieta Bazkardo, Karlos lenengoa'ren denboran, Flandes'en
oñezko kapitana izan zan.



Gurutze Donea'ren eleizarako bidia.

Domingo Arizpe itzas-ontzi ba-
ten burusari zan, ta Kadiz'ko ure-
tan Drak zeritzaion gudari ingeles
batek il zuan.

Jerman Ugarte'koa, Aita Done
Adriano'ren konfesorea zan. Lezo-
ko eleiz nagusian obiraturik dago,
ta martiri izan zalakoan daukate,
bada uste da bere etsayak pozoyez
ill zutela.

Juan Martinez Lezo, bertako
apez-nagusia izan zan. Letradu ao-

men aundikoa, Ofizio Done'ko sermoigillea ta Karlos lenengoa'ren
adiskide aundia zan.

Erretore jaun onek, ikusirik prantzesak 1520-garren urtian ersituba
zekatela Ondarrabi'ko erria, bildu zuben jende mordoška bat, ornitu
zituben sutunpaz, eta berakin igo zan Jaizkibel'ko mendira. Andik kal-
te aundiak egin zizkaten etsayei ta ez zioten laga euren erresumara
igaro ziran arte.

Lezo'ko semia ta ez ots guchienekoa da Lopez Martinez Isasti'koa
apaiz jakintsua, Iruña'ko eliz-fizkala, ta Gipuzkoa'ko kondaira idatzi
zuen jakintsu argidotarra.

Orra seme ospatzu batzuen berriak. Naikua gelditu dira aitatu're
bage, bañan asieran esan dan bezela ez da lan šamurra danen berriak
asaltzen.

III

LEZO'KO GURUTZE DONEA

Lezo'ko erria'ri bere seme ospatsuak izen ots aundikoa eman badiote, aundiagoa eman dio bertan daukaten Gurutze Donea'k.

Orduba da beaz, ori ala dala, esateko zerbait nondik eta nola duten Gurutze maitagarri ori.

Beste gauza askotan bezela ontan ere, gure aurrekoak ez zuten ezer idatzirik laja Gurutze ontaz, eta orrengatik ezan genezake bakarrik aboz abo guregana irichi diran berriak diotena.

Lazun'tarrena zeritzaion echia, icha-soko urak, ur bizieta urbiltzen ziran lekuan zegon.

Zenbat urte diran, azaltzera guazen gertaera igaro zala, ez genezake esan; bañan diotenez, eche artako leyotik ichas aldera begira zeudela ikusi zuten, urak ondarrera zeramala kucha zirurien gauza bat.

Ikusi nayak eraman zituen leku artaño, ta kucha artu ta iriki zutenian arriturik gelditu ziran, bere barrenen Jesus gurutziltzatuen imajiña edo antzeztarikituzutenian.

Beriala, Apaiz-nagusiari eraman zioten gertaera onen berria, ta onek eleizara eramateko agindu zuan.

Ontarako jakin bear da Lazun'tarretako echearen alboan ukullu edo zalditegi bat zegola.

Esan bezela eraman zuten beaz eleiz nagusira Gurutze done ura, ta arriturik gelditu ziran Lezo'tarrak ikusirik urrengo egunian Gurutzea eleizan ez zegola ta bai zalditegian.

Berriro eraman zuten eleizara, bada askoren iritziyan ez zan zalditegia leku egokia; baña berriz ere alde egin zuan eleizatik eta arkitu zan zalditegian.

Ontan esagutu zuten, leku artan gurtutzia nai zuala Jesus'ek bere imajiña edo antzeztar, ta leku artan egin zuten eleizacho bat, eta an ipiñi zuten Gurutze Donea.



Eleiza'ren aurreko aldia.

An gertatu ziran mirariak arrigarrienetakoak dira: gañoak sendatu, elbarriak osatu, gorrak aditu, mutuak itz egin..... orduetik datorkio Lezo'ko Gurutze Donea'ri Euskal-errian duben ots aundia.

Badira diotenak, Ingalaterra'ko Enrike zortzigarrena protestantiaren alde jarri zanian, imajiña asko ichaso'ra bota zituela ta ayetako bat dala Lezo'ra irichi zana.

Ez liteke ordia ori egiya izan, bada bertako seme Isasti jakintsuak dion bezela, Enrike erregea'ren esan dan gertaera zitala, baño berreun urtez lenagotik Lezo'ko errian zegoen Gurutze Donea.

Beste batzuben diote berriz: Bayona'ko Apezpiku martiria Done Leon'ek ekarria dala Eleiza'ren bigarren edo irugarren eunkidan, bere ardiak ikustera etorri zan batian, bada orduban bai Lezo ta bai Ondarrabia ere Bayona'ko Apezpikua'ren mendekoak ziran.

Uste det nik lenengo ta azkeneko berriakin gertaera egiazkoa asmatu lei-kiela.

IV

ELEIZACHOA

Ezer ikustekorik badago Lezo'n, Gurutze Donea'ren eleizachoa da.

Milla larogei ta amargarren urtera-ño iruki zuten eleizacho tañar batian Jesus gurutziltzatuaren imajina, ta nola geruago ta jende geyago biltzen zan bera gana, geruago ta tañarago arkitzen zan leku ura.

Orduban Lope Isasti ta bere anayari gogoratu zitzayen eleiz eder bat jaso biar zutela leku artan berean, ta andik ogeita amar urte barru bukatu zuten, beriala asi bai ziran ere.

Eliz onek, sarreratik aldare nagusiraño eun ta bi oñ daukazki ta lurretik tellatura berrogei ta iru.

Isasti'k diyo bere kondairan: «orain dala ogeita amar urte asi giñan eleiza egiten nere anaya ta ni» ta dorrea bakarra gelditu zala bukatu gabe, ta 1581-garren urterako illa zan Isasti.

Kanpo ta barren guztiz eder eta apaña da eleiz au.




Eleiza'ko sarrera.

V

AMAYA

Beñere baño geyago juaten da orain Lezo'ra, Gurutze Donea'ren oñetan belaunikatutzero.

Bakarrik edo jorrutean, Euskal-erriko baztar guzietatik biltzen dira leku artara. Nekazariyak eskatzera lurren ontasunak; arrantzale ta ichasgizonak laguntzaren billa, ta ez guchi..... ezkontzera.



Eleiza'ren barrena.

Donosti'tik beñegin, ta beste asko errietatik ere bai, iya egunero badira ezkontzera dijoazenak.

¿Egiya ote da ezkontzen danak, gurutze astuna bizkar gañean arzen duala?

Ariñago izan deyen joaten dira nonbait, gu pekataria'gatik astunena bere gain artuta gurutzian asken asnasa eman zubenaren gana.

Lezo'ko Jesus Gurutzetua iruki dezagula beti Euskal-erriko zaitzari maitagarritzat.

J. M. A.